

Luis Elizetxea Iturburu

“Antzerki entretenigarria egin nahi izan dut”

Mikel Ugalde

Aurtengo Madalenetan, ohikoa izan ohi den bezala, euskal antzerkia ikusi eta dastatu ahal izango dugu Ereintzaren eskutik, uztailearen 23an, Niessen Kultur Zentroan antzeztuko den ekitaldian. Aurtengoak, esan bezala ohikoa bada ere, baditu bere berezitasunak. Batetik, lana idatzi berria denez, lehen aldiz, estreinakoz, aurkeztuko da. Bestetik, idazlea errenteriarra izanik, halako solasaldia izan dugu autorearekin obraren zein egilearen hainbat kontu ezagutu eta aldizkari honetan jakinarazteko asmoz.

“Hiru biren prezioan”

Galdera: “Hiru biren prezioan” dugu antzeztanaren izena. Merkatalgo eremuko eskaintzatan sarritan entzun eta irakurri ohi dugun slogana dirudi. Merkatalgune mundua al da obraren bizkar hezurra?

Erantzuna: Supermerkatu batean kokatutako lana den arren, ez nuke tramak mundu horrekin lotura zuzena duenik esango. Supermerkatuan gerta daitezkeen hainbat gauza biltzen dira.



Pertsonaia nagusiak supermerkatu horretako hiru kajera dira, eta nolabait haiei gertatzen zaiena, bizitzan zehar gertaturikoak, pentsamenduak, sentipenak adin eta garai desberdinekoak dira. Beste kokaguneren batean koka zitezkeen baina horrelako denda batek bestetan ez bezalako aukerak ematen ditu.

G: Kokalekuaz hitz egin diguzu baina nola azalduko zeniguke zure lana?

E: Nire helburua izan da herriko jaietan jendeak ondo pasatzeko moduko komedia egitea, antzerki entretenigarria egin nahi izan dut.

G: Umorez blai datorkigu aurtengo antzerkia...

E: Halaxe da. Umorea etenik gabekoa izango da. Hala ere, pertsonaia bakoitzari dagozkion garai eta izaerarekin gertaturikoek ematen diote indarra obrari. Kajera bat jubilatzeaz dago, bestea sartu berria da. Hirugarrena berrogei urteren bueltan... bizitzaren une esanguratsuetan hirurak. Bakoitzaren pentsamenduak, bizitako esperientziak... Kontraste hori ere azaldu nahi nuen.

G: Nondik nora otu zaizu gisa honetako lana idaztea?

E: Sormen lana gustuko dut eta ideiak badatozkit, kasu batean nobela idazteko, ipuinak osatzeko, gauzak azaltzeko... ideiak badatozkit. Egia esan, ni joan ohi naizen supermerkatuko

kajerak ezagututa, eta ordaintzeko ilaratan zaude-nenean bezeroei-eta entzuten zaizkienak gogoan hartuta, iruditu zitzaidan supermerkatuko kajerek aski dakitela gutaz. Konturatu naiz onargarria dela otu zaidan "esadazu zer erosten duzun eta esango dizut nolakoa zaren" delako esaldia. Sekretutxo batzuk badituztela kapritxoak erosten ditugunean, bizioren bat isilgordean mantendu nahi dugunean, enteratzen dira etxean ospakizun bereziren bat dugunean, gure gutziak zeintzuk diren, pentsatzen dut psikologoak ere badirela eta gero beraien artean gutaz beren komentarioak egingo dituztela. Eta hortik abiatzen naiz.

G: Denbora asko eskaini behar al izan diozu lan honi?

E: Abiapuntua eta amaiera nahiko garbi neuzkan. Tolosan lan egiten dudanez, eta bolada hartan familia kanpoan nuen, inauteriko jaietan eman nion bultzada lan honi.

G: Komedia honetan gustura sentitzeaz gain, beste mezuren bat eskaini nahi al izan duzu?

E: Pertsonaiak izaeraz desberdinak izanik, hainbat dohain eta miseria ere agertzen dira. Batzuetan guztia ezagutzen dugula pentsatzea, gazetetasunak ihes egiten digula, berrogeiko hamarkadak sortarazten dizkigun sentipenak, hogeituroko gazte batek izan ditzakeen ametsak, perspektibak pertsonen arteko harremanetan sortzen diren sentimenduak... hori guztia komediaren barruan.

G: Hau guztia garatzeko antzerki jeneroaz baliatu zara...

E: Nik antzerkiari ikusten diot gauzak aurrez aurre eta zuzenean azaltzeko aukera ematen duela elkarrizketaren bitartez. Orri gutxitan istorio luzea agertzeko aukera ematen du. Antzerkiak zuzenean bideratzeko dituen moduak erakartzen gaitu. Ikusleak, bestalde, ez du testua irakurri beharrik, ez du lan handirik egin behar. Publikoaren erreakzioak berehala jasotzen dituzu, zure espektatibak jendearen erantzunarekin kontrasta ditzakezu.

G: Beste arlo batzuk ere jorratu izan dituzu zure idazlanetan...



E.: Gogoko dut komunikazioa. Nik kazetaritza ikasi nuen komunikatzeko. Irratia ere gus-tatzen zait, Errenteriako udal irratian aritu nintzen garai batean, gero irakaskuntzari heldu nion. Hemen ere ahalik eta egokien komunikatzea beharrezkoa da.

Bajo el nivel del mar

G: Oker ez banago, nobela bat baduzu gaz-telaniaz publikatua...

E: Lehen esan bezala, komunikatu behar-aren gogoari jarraiki, "Bajo el nivel del mar" izeneko nobela bat idatzi nuen eta Donostiako Hiria argi-taletxeak argitaratu zuen duela lau urte. Idazteko behar hori sentitzen baitut, saiatu naiz era batera edo bestera erantzuten.

G: Nondik norakoa da nobelaren gaia?

E: Holandako auzolandegi batean kokatu-tako nobela da. Gazteen baitan maitasun istorio bat eta intriga biltzen da kutsu sozialean girotuz.

G: Non eta zertaz ari zara zure irakasle lanetan?

E: Tolosan ari naiz, Hirudike Ikastetxean. Euskal ereduko ikasleei euskara, euskal literatura eta zuzenbidea ere erakusten diet. Eskolan badugu irratia eta hango arduradun naiz... Ikusten den bezala hori guztia komunikazioarekin lotua dago.

G: Ez dago komunikaziorik gabe bizitzerik. Ez dago komunikazioa eskatzen ez duen ofiziorik. Irakaskuntzan ari zarenez, komunikazioaren ikus-puntutik ikaslearen gaitasuna garatzen al da? Edota asignatura ikasi behararen mugetan gelditzen al da?

E: Idatziz lan gehiago egiten da ahoz baino, ahozkoa lantzeak askozaz denbora gehiago eskatzen baitu. Gainera, ebaluatzeko orduan gaztetxoen izaerak zer ikusi handia du, guztiak ez baitira berdinak. Batzuk lotsatiagoak, besteak ausartagoak... Dena den, garai bateko klase magis-traletan ez bezala egiten da lana eskoletan: talde-lanak, aurkezpenak... Komunikazioa hobetzeko teknikak ere lantzen dira, batez ere lan bidean abiatzen direnekin.

G: Gaur egun, gizartea aldatuz doan hone-tan, erraza al da irakasle izatea?

E: Hemendik hamar urtetara ez dakit, baina orain ilusio osoz ari naiz lanean.

Familia gogoan

G: Familiaren oso maitale ikusi izan zaitugu zure agerpenetan...

E: Bai, halaxe da. Semea eta alaba dauzkagu zortzi eta lau urtekoak. Ahal dudan denbora gehiena eskaintzen saiatzen naiz. Irakaskuntzako oporrek aukera paregabea ipintzen digute seme-alabekin gozatzeko. Saiatzen gara, bai, horretaz baliatzen. Gozada bat da.

G: Egile izateaz gain, antzezle ere izango zaitugu hurrengo emanaldian. Zer sentituko duzu familia bertan izango dela pentsatzean?

E: Antzezle moduan ikusi izan naute antzer-kian eta iaz alaba beldurtu zen gurpildun aulkian bendaz beteta ikusi ninduenean... Bestela, seme-alabek normaltasunez ikusten naute. Egile ere izan naizela jabetzea gehiago kostako zaie. Baina, tira, Kultur Zentroan izango direla jakiteak poz handia emango dit.

G: Orduan, Madalenetan gozatuko dugu estreinaldian...

E: Oso gogoan dut "Ama begira zazu" antzeztu genuenean lortutako arrakasta. Konturatzen naiz ikusleak antzerki xumeagoak, jostariak, umoretsuak dituela gogoko. Jendearen erantzunak animatzen gaitu bide horri eusteko.

Zorionak, Luis, eta mila esker Ereintza talde osoari.

